

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4091

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Plastigaur SA enpresak aurkeztu duen proiektu teknikoa, Andoainen plastikozko produktuak fabrikatzeko.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean aipatzen den jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu zein funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihesteko baldintzak ezartzea, eta hori ezinezkoa bada, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikulua xedatzen duenez, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa osatu ostean, dokumentazio hori jendaurrean jarri behar da, 30 egunez, gutxienez.

Azaldutakoa kontuan hartuta, IPPC AAI00400_SOL_2019_001 espedientea jendaurrean jarri behar da, hogeita hamar egun balioduneko epe batez, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egokitzen jotzen diren alegazio edo oharrak aurkezteko.

Informazio publikoaren izapidea bete behar duten instalazioen espedienteak ikusgai jarriko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 16a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
IVAN PEDREIRA LANCHAS.